



ARAUTEGIA

ARETO FUTBOLA 2019

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Futbol Federazioarekin lankidetzan, Euskadiko XXXVIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu 2019ko maiatzaren 25ean, Santurtziko Kabiezes Udal Kiroldegian.

Hona hemen arautegia:

1. **JOKATZEKO MODUA**

Hirukoan.

Mailak:

Infantilak: 2005 eta 2006an jaiotako neska-mutilak.

2. **TALDEEN OSAERA**

Taldeak honela osatuko dira: gehienez hamabi jokalaria, ordezkari bat eta entrenatzailea.

Talde bakoitzak bi kamiseta joko edukitzea beharrezkoa da, bi taldek kamiseta berdinak eramatea gerta ez dadin.

3. **PARTIDEN IRAUPENA**

Hogeita bost minutuko zati bat izango ditu partida bakoitzak. Zati bakoitzak 12minutu eta 30 segundoko bi tarte izango ditu. Jokalari bakoitzak gutxienez zati bat jokatu beharko du, salbuespenak honako hauek izan daitezkelarik:

- Lesionatutako jokalaria. (Asistentzia jaso ezkerro edota bi minutu baino gehiagoko geldialdia gertatzen ez bada, aldaketa egiteko beharrik ez da egongo).
- Kaleratutako jokalaria.

Talde bakoitzak hutsarte bat eskatzeko aukera du zati bakoitzean.

Ligaren azken sailkapenean berdinketarik gerta ez dadin, emaitza edozein delarik ere, hiru penalti jaurtiko ditu talde bakoitzak partidaren amaieran. Partida

arautegiaren arabera baldintza egokietan bukatu dutenen artean aukeratuko da penaltiak nork bota.

4. AZKEN SAILKAPENEAN BERDINKETA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

→ BERDINKETA BIKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

1. Talde irabazleak beraien artean jokaturiko partidaren lortutako emaitza.
2. Talde irabazleak beraien artean jaurtitako penaltien emaitzak
3. Partida denboran zehar sarturiko golen aldea.
4. Partida guzietan sarturiko penaltien aldea.
5. Partidaren lortutako aldeko golak guztira
6. Aldeko penaltiak guztira
7. Desberdintze partida

→ BERDINKETA HIRUKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

1. Berdindutako taldeen arteko golen aldea
2. Berdindutako taldeen arteko penaltien aldea
3. Berdindutako taldeen artean gol gehien sartu dituenak
4. Berdindutako taldeen artean penalti gehien sartu dituenak
5. Partida denboran zehar sarturiko gol guzien aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz
6. Penalتي guzien aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz
7. Kanporaturiko taldea kontuan edukiaz gol gehien sartu dituenak
8. Kanporaturiko taldea kontuan edukiz penalti gehien sartu dituenak
9. Zozketa

5.- BALOIA

Baloia ASTORE etxekoa izango da, PRO SALA modelokoa.

6.- SAKEAK

- ALBOKO SAKEA

Baloia alboko marretatik ateratzen denean, jokalariai baloia marraren gainean jarriko du ostikada baten bidez zelairatuz. Arerioa 5 metroko tartea utzi beharko du.

- KORNERRA

Kornerra talde erasotzaileko jokalariai batek aterako du, baloia zelaiaaren ertzean jarrita, ostikada baten bidez zelairatuko du. Arerioa 5 metroko tartea utzi beharko du.

- ATEKO SAKEA

Ateko sakea atezainak egingo du eta jokoan eskuz egindako jaurtiketaren bidez jarriko du, baina ondoko marra pasa duen lekuaren aldeko area erditik.

Baloia penalti areatik ateratzen den unean ulertuko da baloia jokoan dagoela eta ateko sakea zuzen egin dela. Baloia jokoan jarri arte aurkako jokalariai aipatu penalti areatik kanpo egon beharko dute.

Zelaiaren beste aldera pasatzea zilegia izango da . Ateko sakea eginez, zuzenean gola sartu ezker ez da baliagarria izango.

7.- GOLA

Ez da baliozkoa izango alboko saketik zuzenean lortutako gola. Baliagarria izango da kornurretik lortutakoa.

Edozein jokalarik sar dezake gola kantzako edozein tokitatik, lehen adierazitako tokietatik salbu.

8.-BESTE BATZUK

Jokalariak atezaina barne, 4 “ dituzte edozein sake edo jaurtiketa egiteko.

Atezainak behin bakarrik jaso ahal izango du bere taldeko jokalariek nahita edo nahigabe eginiko lagapenak, eta ezingo du baloia berriz ukitu aurkari batek baloia jokatu edo ukitu arte edota beste zelaira pasa ez bada.

Taldekide batek atezainari baloia zelaiaren edozein aldetik, nahita bidalitakoan honek eskuarekin jokatzen badu, falta izango da. (falta egin duen tokitik jaurtiketa ez zuzenaren bidez egingo da, hau atezainaren eremuaren barruan izan ezkerro jaurtiketa ez zuena marraren gainetik izango da).

9.- SARIAK

Ondorengo sariak emango dira: lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutako taldeei garaikur bana emango zaie.

10.- EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkerro nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

11.- AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a. 14/ 1998 LEGEA, Ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena.
- b. 125/2008 DEKRETUA, Uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.



EUSKADIKO XXXVIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XXXVIII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



- c. 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-araubideari buruzkoa
- d. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailburuaren 2019ko urtarrilaren 10eko AGINDUA, 2019ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVIII. edizioaren deialdia egiteko dena
- e. Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendariak, 2019ko urtarrilaren 16ko EBAZPENA, 2019ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XXXVIII. edizioaren epaile bakarra izendatzen dena.
- f) Futboleko Euskadiko Federazioaren araudiak dioena.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkerro, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.